



JUAN SEBASTIAN ELKANO

Getariarrok, elkarrekin,
Lehorreratze ekitaldiaren
inguruan hausnartzeko

herri-elkarrizketa irekia

ONDORIOEN TXOSTENA

2021eko abendua

“

Gure elkarrizketatik aterako da gure etorkizuna.

Europako Bauhaus Berria

Aurkibidea

Aurkezpena

Herri-elkarrizketarako partaidetza prozesua

Helburuak
Diseinu-irizpideak
Eskema

Prozesuaren garapena

Urrats nagusiak, denboran kokatuta
Burututako saioak
Protagonistak eta bertaratzeak

Emaitzak eta ondorioak

Nola bizi dugu gaur Lehorreratzea? Zer da guretzat?
Orain arteko ekitaldiari erreparatuta: Zer mantendu? Zer birpentsatu?
Ezagutzari begirada berriak
Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

Hurrengo urratsak

Eranskinak





1 aurkezpena

Aurkezpena

2022. urtean, lehen mundubiraren 500 urteak eta Elkanoren Lehorreratze ekitaldiaren lehen mendeurrena gogoratuko dira Getarian.

Testuinguru horretan, Getariako Udalak **Lehorreratzearen inguruan hausnarketa eta elkarrizketa** irekia zabaldu nahi izan du **herrian eta herritarrekin**.

Urte guzti hauetan ekitaldia mantentzen lan egin dutenei **aitortza** egin eta eskerrak emateaz gain, mendeak dakarren inertzia begirada zabaletik aztertu eta gogoeta egin nahi izan da.

Herritarrekin eta herriarentzat, duela 100 urte getariar talde batek irudikatu zuen Lehorreratzearen **eboluzioa elkarrekin irudikatzeko**.

2021eko irailetik abendura bitartean herri-elkarrizketa hori helburu izan duen **parte-hartze prozesu bat** burutu da, herriko talde desberdinen esku-hartzea bilatuz eta ahalbidetuz.

Parte-hartze prozesua gidatzeaz eta koordinatzeaz Getariako Udala arduratu da, Elkano Fundazioaren eta Prometea lantaldearen laguntzarekin.

Txosten honetan Elkanoren Lehorreratzearen inguruko herri-elkarrizketaren ondorioak jaso dira.

Ondorio horiek parte hartze prozesuaren ardatzak izan diren galdera hauekin dute lotura:

- **Nola bizi dugu gaur Lehorreratzea?**
- **Nola irudikatzen dugu etorkizunean?**
- **2022ra begira, zer bide berri zabalduko dugu?**

2 herri- elkarriketa



Herri-elkarriketarako partaidetza prozesua

Zertarako? Helburuak

Herritik eta herritarrekin sortu zen ekitaldiaren eboluzio naturalean, getariarrok Lehorreratze ekitaldiari buruz ditugun iritziak, ikuspegiak, desirak... **partekatzea**.

Horretarako saio eta bide desberdinak aktibatzea, herriko talde desberdinen **parte hartzea bermatzea**.

Horietan guztietan jasotako ondorioek lagun dezaten, aurrerantzean, getariarrok zer nolako Lehorreratze ekitaldia **nahi dugun irudikatzea** eta, bere kasuan, horrek berarekin dakartzan egokitzapenak planteatzea.

Nola? Partaidetza prozesuaren diseinu-irizpideak

Lehorreratze ekitaldiari buruzko herri-elkarriketa irekia ahalbidetzeko diseinatutako partaidetza prozesuak honako irizpideak zaindu nahi izan ditu:

- **Prozesu ireki bat** planteatzea, askotariko herritarrekin hitz egiteko: Lehorreratzean parte hartzen duten pertsonak, gazteak, emakumeak, nerabeak...
- **Getariako errealitatera egokitutako** eta dimentsionatutako prozesu bat marraztea -2.800 biztanle inguru dituen herria-; erronkaren konplexutasunari prozesu samur batek egin diezaiokeen ekarpena lehenetsiz.
- Planteamenduak diseinu eta **berrikuntza sozialaren tresnak** baliatzea, parte-hartzaileei prozesuan sakontzeko aukera emanez, banakakoan zein taldeka.
- Prozesuan **lidergo anitzak** definitzea, sorkuntza kolektiboa errazteko eta urratsez urrats batera aurrera egiteko: zuzendaritza taldea, talde eragilea, parte-hartzeko askotariko espazioak, komunikazioa.

Partaidetza prozesuaren zuzendaritza taldeak gidatuta, talde eragilea izan da herri-elkarriketa prozesuaren motorra.

Getariar talde anitz batek osatutako espazio horretan emandako hausnarketa elikatu dute kolektibo eta talde desberdinekin berariaz garatu diren beste saioek –emakumeak, gazteak, nerabeak, jatorri anitzetako getariarrak-.

Herri-elkarrizketarako partaidetza prozesua

Nola? Partaidetza prozesuaren eskema

Marraztutako ibilbidean 5 fase definitu dira:

1. Abiatu aurreko prestaketa eta akordioak, Getariako Udalarekin eta Elkano Fundazioarekin
2. Herritarrei prozesuaren berri emateko ekitaldi irekia, 2021eko irailaren 16an
3. Elkarrizketak eta elkar-entzutea ahalbidetu duten parte-hartzeko espazio eta guneen garapena, talde eragilearekin zein gainontzeko taldeekin
4. Jasotakoaren azterketa, gako eta ondorio nagusiak identifikatuz
5. Ondorio horien itzulera

1. Prozesuaren ko-diseinua: abiapuntuko akordioa



2. Sozializazioa eta gonbidapena



3. Elkarrizketak eta elkar-entzutea



5. Itzulera



4. Analisia eta ondorioak



Herri-elkarrizketarako partaidetza prozesua



Etorkizuneko Lehorreratze- ekitaldiaren ko-sorkuntza helburu

Gonbidapen ireki eta zabala

Herri-elkarrizketa prozesuan zabaldu diren gune eta bide desberdinek getarriarren partaidetza bilatu dute, modu libre eta naturalean, begirada, iritzi eta ikuspegi anitzei tokia emanez.

Komunikazioa lagun

Komunikatiboki ahalegin berezia egin da, Getariako Udaletik eta Elkano Fundaziotik, aukera horien berri eman eta getariarrak prozesuan protagonista izatera gonbidatzeko.

Elkar-entzute eta elkarrizketan oinarritutako ko- sorkuntza helburu

Horrek guztiak helburu nagusi bat izan du: etorkizuneko Lehorreratze-ekitaldia ko-sorkuntzan oinarrituz irudikatzea. Duela 100 urte herritik sortutako ekitaldiaren eboluzioa etor dadila, mendea iragan ostean, herritarrengandik.

100 urtez herri-
kohesiorako
elementua izan da
Lehorreratze ekitaldia,
getariarren ondare
bihurtuz.

Izaera hori zaindu eta
mantentzeko
intentzioa hasieratik
presente egon da
partaidetza prozesuan.



3 prozesuaren garapena

“

Getariako Udal osoaren eta Elkano Fundazioaren babesarekin abiatu genuen herri-elkarrizketa prozesua, 2021eko ekitaldi irekiarekin.

Ordutik hona gauzatu diren elkarrizketaguneetan bizi eta jasotakoek berretsi dute merezi zuela Lehorreratze ekitaldiari buruz hitz egiteko tarte hartzeak.

Urrats nagusiak, denboran kokatuta

Zuzendaritza taldea

Zuzendaritza taldea 2021eko udaberrian hasi zen ibilbidearen prestaketa lanetan

Getariako Udala osatzen duten talde politikoek, Elkano Fundazioak eta kanpo-laguntza eman duen Prometea lantaldeak osatutako taldeak prozesua modu egokian garatzeko irizpideak eta baldintzak landu zituzten.

Garrantzia berezia eman zitzaion ibilbide osoan zaindu den komunikazio-plangintza egiteari.

Aurkezpen ekitaldia

2021ko irailaren 16an abiatu zen prozesua, aurkezpen-ekitaldi irekiarekin

Duela 500 urte Elkanok kapitaitza hartu zuen egun berean abiatu genuen herri-elkarrizketarako partaidetza prozesua.

Zuzendaritza taldearen eskutik prozesuaren nondik norakoak azaldu eta parte hartzeko gonbidapena getariarrei luzatzeko ekitaldi ireki ederra burutu zen Iturzaeta aretoan, herritarren partaidetzarekin.

Herri-elkarrizketa

2021ko irailetik abendura bitartean herri-elkarrizketarako hainbat saio egin dira

Horien norantza eta indarra 20-25 getariarrez osatutako talde eragileak hartu du, guztira 4 saio burutuz.


Talde eragilearen lanketa osatu eta aberastu dute talde zehatzekin egindako beste berariazko saioek –zehazki gazteekin, emakumeekin, nerabeekin eta jatorri anitzetako getariar batzuekin-.

Elkano Fundazioak ezagutzaren inguruko ekarpena ere egin du, denei zabalduko mintzodromoan.


Horri guztiari esker amaierako fasean etorkizuneko Lehorreratze ekitaldiaren norantza markatzen duten zenbait gako identifikatu ahal izan dira talde eragilean.

Prozesuaren emaitza izango da, aurrerantzean eta 2022. urteko ekitaldiari begira, erabakiak hartzeko bideorria zuzendaritza taldearentzat.

Burututako lan-saioak



2021. urtean burututako lan-saioak



Protagonistak eta bertaratzeak

Guztira **65** getariar inguruk parte hartu dute, uneren batean, herri-elkarrizketa prozesuan, **126** bertaratze batuz.

* Zenbaki horretan ez dira kontuan hartu ekitaldi irekira bertaratu zirenak -ez zen izenik jaso-, ezta zuzendaritza taldearen bileretako bertaratzeak ere.

Mila esker bakoitzari eta guztioi!

Elkarrekin, zentzua eta edukia eman diogu ibilbideari.

Talde eragilean edo/eta mintzodromoan partaide izan dira:

Aintzane Adrian - Belen Adrian - Jesus Aizpuru - Mariam Aizpuru - Hariz Alberdi - Olatz Alberdi - Eneko Alegria - Marivi Aranguren - Beñat Aristi - Alaia Berriozabal - Bartolo Campos - Haritz Esteban - Beñat Etxabe - Ane Ezenarro - Beñat Gereka - Ibon Gereka - Izaro Lestayo - Maialen Gereka - Gaizka Gorostiaga - Gaizkane - Intza Gurrutxaga - Balbino Inza - Ander Iribar - Beni Iribar - Floren Iribar - Karmele Iribar - Peio Isasti - Balbino Larrañaga - Nerea Kamio - Mertxe Mendizabal - Iosu Mugika - Erun Ortiz - Aitor Urresti - Emeterio Urresti - June Usandizaga - Rafa Zulaika

Gazteekin egindako saioko partaideak:

Aimar Iraola - Intza Gurrutxaga - Ioseba Fuentes Echegoyen - Jon Ander De la Hoz - Haritz Esteban

Emakumeekin egindako saioko partaideak:

Mertxe - Belen - Aintzane - Maddalen - Gaizkane - Karmele - Mariña talde feministatik Maitane, Ainhoa eta Mirene

Nerabeekin egindako saioko partaideak:

Unai - Liher - Darel - Eneko - Noah - Amets - Iker

Jatorri anitzetako getariarrekin egindako saioko partaideak:

Sylvie (Camerún) - Irina (Rusia) - Mbaye (Senegal) - Seni (Senegal) - Manuel (Portugal) - Esther (Santander) - Barbara (Alemania) - Sarah (Estados Unidos) - Jonathan (Australia)

Zuzendaritza taldea:

Hariz Alberdi - Zorione Aierbe - Marivi Aranguren - Alaia Berriozabal - Nagore Garcia de Vicuña - Ibon Gereka - Ion Irurzun - Iciar Montejo - Iosu Mugika - Erun Ortiz - Aitor Urresti - Rafa Zulaika

4 Emaizak



Emaitzak

“

Nola bizi dugu gaur Lehorreratzea? Zer da guretzat?

Orain arteko ekitaldiari erreparatuta: Zer mantendu?
Zer birpentsatu?

Ezagutzari begirada berriak: Elkano Fundazioaren
ekarpena

Nola irudikatzen dugu ekitaldia etorkizunean?
Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

a.

Nola bizi dugu gaur Lehorreratzea? Zer da guretzat?

**Lehorreratzea modu anitzetan
bizi dugu getariarrok.**

Aitortza, emozioa, antzezlanak, herri-izaera, galderak eta kontrajarritako sentimentuak, eguneratu beharreko ekitaldia, herriaren erakusleihoa...

Horiek guztiek eta bakoitzaren ñabardurek bat egiten dute herritik eta herritarrekin sortutako ekitaldian.

**aitortza
emozioa**

**antzezlanak
herri-ondarea**

**galderak
kontrajarritako
sentimenduak**

**eboluzioa
eskatzen duen
ekitaldia**

erakusleihoa

Nola bizi dugu gaur Lehorreratzea? Zer da guretzat?

Lehorreratzea modu anitzetan bizi dugu getariarrok

Aitortza

- Herriaren aitortza Elkanori eta mundubira gauzatu zutenei.
- Elkanori herriak egiten dion aitortza, munduan herria kokatzeagatik.
- Herriko gizon handi baten merezitako omenaldia.
- Gertaera historiko handi baten aldarrikapena eta aitortza.

Emozioa

- Itsasontzia portura iristen deneko unea ederra eta hunkigarria da: isiltasuna, musika, kañoiak...
- Harrotasuna, herri-kohesioa, eta batez ere, emozioa.
- Emozioa, zirrara, harrotasun eguna, poza.
- Urteko momentu berezi bat.
- Getariarra eta euskalduna izatearen harrotasuna sentiarazten didan espektakulua.
- Emozioa. Oroitzapenak. Belaunaldi desberdinak.

Antzezlanak

- Herritarren parte hartzeari esker egiten den antzezlanak eta jaieguna.
- Herri gisa egiten dugun memoria kolektiboko antzezpen hunkigarria.
- Herritarren parte-hartzeari esker gauzatzen den gure festa.
- Elkarlan haundia.
- "Festa eguna da": familian bazkaldu eta lehorreratzea ikustera joaten gara.
- Getariako herriko elkarlan potentea da.
- Makilatutako historia baten antzezlanak da.

Herri-ondarea

- Herri-ondarea, identitatea, herri-izaera, memoria historikoaren ospakizun kolektiboa.
- Gure memoria kolektiboa transmititzeko adierazpide publiko, parte-hartzaile eta dinamikoa.
- Herri kohesioa lortzen duen ekitaldia.
- Iragana gaurkoratzen duen herri baten adierazpen kolektiboa.

Nola bizi dugu gaur Lehorreratzea? Zer da guretzat?

Lehorreratzea modu anitzetan bizi dugu getariarrok

Galderak eta kontrajarritako sentimenduak

- Txikitatik Elkanori buruzko kontakizun kolektibo bat jaso dugu, Lehorreratzean islatzen dena. Hazten joan garen heinean, ordea, Elkanoren eta mundubiraren itzalak deskubritzen joan gara; baina bakoitza bere aldetik, honi buruz kolektiboan ez baita hitz egiten. Eta horrek nolabaiteko desengainua eta zalantzak eragin dizkigu: zer kontatzen da, eta zer ez?
- Ikusi nuen lehen egunean emozioa eragin zidan. Ondoren, Elkanoren figura gehiago ezagutu ahala, galderak sortu zaizkit: zergatik halako aitortza Elkanori, eta ez herriko beste pertsona batzuei? Zergatik egiten zaie aitortza 18 marinelei, eta ez guztira iritsi ziren 30ei? Non daude marinelekin iritsi ziren 3 indigenak? Zer gehiago gertatu zen mundubiran eta ez da ekitaldian kontatzen? Nork parte har dezake ekitaldian, eta nork ez? Zergatik margotzen da jendea beltzez, Getarian herritar beltzak bizi direnean?
- Norentzat egiten da Lehorreratzea? Getariarrontzat? Kanpokoentzat?
- Polemikoa. Auzolotsa.
- Nahiz eta hemen Elkanoren mundubira aitortu, hainbat tokitan Magallanes aipatzen da oraindik. Asko dago ezagutza horren hedapenean egiteke oraindik.

Eboluzioa eskatzen duen ekitaldia

- Bere garaian, pertsona jakin batzuk sorturiko antzerkia, beraien ikuspegietan oinarrituz eta nahi edo sinisten zuten ikuspegia emanez.
- Gaur, sentitzen dugu Lehorreratzea aldaketa-bidean dagoela. Zerbait bizia den heinean, eboluziorako prest egon behar du ekitaldiak.

Erakusleihoa

- Getariarron erakusleihoa.
- Zerbait intensoa da eta balioa ematen dio herriari.

b.

**Orain arteko
ekitaldiari
erreparatuta:
Zer mantendu?**

Orain arteko ekitaldiari erreparatuta: Zer mantendu?

Etorkizunari begira, Lehorreratzea bizirik irudikatzen da.

Bereziki ondo
baloratuak izan dira
azken urteetan
emandako aldaketak.

Moldaketa horiekin
batera, hainbat
elementu
mantentzearen
garrantzia azpimarratu
da: batzuk irismen
orokorrekoak, eta
baita gai zehatzak ere.

Osoko begiradatik...

- Gertakari historikoaren adierazpena. Getariako historia kontatzen eta aitortzen du.
- Herri guztiaren elkarlana ematen da.
- Azken urteetan barneratu diren aldaketak: herriko eragileen presentzia agintarien komitiban, mutilen presentzia karrozetan...
- Ekitaldiaren antolaketa: kanpotik datozenek ikusten eta baloratzen duten zerbait da, oso ondo antolatuta dagoela.
- 4 urtean behin egitea: lan asko suposatzen du.

... Xehetasunetara

- Ekitaldiaren planteamenduan: herria zain dela itsasontzia portura heldu eta elizara doazenerako tartea.
- Musikaren eta soinuaren papera eta trataera: Vangelis, abesbatza, “Gora Elkano” abestia, kañoiak...
- Arlo logistikoan:
 - Megafonia eta hizkuntza desberdinen trataera.
 - Frontoian jartzen diren pantaila handiak, batez ere nagusiei zuzenduta.

b.

Orain arteko ekitaldiari erreparatuta: Zer birpentsatu?

Ezagutzari begirada berriak
jarrita, eta Lehorreratzearen
eboluzio naturalean, moldaketen
beharra 5 arlotan azpimarratu da.

Orain arteko ekitaldiari erreparatuta: Zer birpentsatu?

Kontakizuna, antzezpena, parte hartzea eta parekidetasuna, ezagutzaren pedagogia eta sozializazioa, eta logistika arloko gai puntualak

Kontakizuna

Ezagutzari begirada berriak jarrita, kontakizunak moldaketak eskatzen ditu, datu batzuk zehaztu edo ñabartu, elementu berriak sartu eta beste batzuk indartzeko.

Antzezpena

Kontakizunaren moldaketen arabera, eszenografia egokitu beharko da.

Parte-hartzea eta parekidetasuna

Antzezlana izanik, nola zabaldu getariarren parte hartzea ekitaldian, parekidetasuna ere bermatuz?

Marinelak eta “oinordetza”: nola eman beste urrats bat, oraindik lekukoa eman ez duten tripulatzailleekin?

Agintarien komitiba: nola eraldatu?.

Ezagutzaren pedagogia eta sozializazioa

Nahiz eta azken urteetan Elkanoren figura eta mundubiraren nondik norakoak ezagutzera emateko ahalegin berezia egin den, transmisio horri bultzada eman diezaiokegu.

Logistika-gai puntualak

Antolaketa.
Estetika eta jantziak.

C.

Ezagutzari begirada berriak

Elkano Fundazioaren ekarpena

“ Ezagutza berriena baino, akaso
begirada berrien garaia da.

Duela 100 urte, Lehorreratzea irudikatu
zutenean, bazekizkiten hainbat gauza.
Baina ikerketa eta ezagutza horiei
gaurko begiekin eta begirada berri
batekin erreparatzen badiegu,
Lehorreratzean horretaz zer azaldu, eta
garrantzia zeri eman, egokitu
dezakegu.

Rafa Zulaika, Elkano Fundazioa



Ezagutzari begirada berriak

Non jarri fokua? 7+2 puntu

1. Lehen mundubiraren aurrekariak: euskal itsas kultura

- Elkanok mundubira egitea ez zen kasualitatea izan. Euskal Herriko itsas kulturari du oinarria, bai barnekaldekoa zein kostaldekoa –Bermeo, Getaria, Bilbo...- .
- Euskaldunen parte hartzea ere nabarmena izan zen espedizioan: marinelak eta ontziak.

2. Emakume itsastarrak: genero ikuspegia

- Askotan ahaztu den gaia da, eta orain gehiago ikertu dena eta zabaldu beharrekoa.
- Emakume itsastarrek garrantzia izan zuten mundubiran, lehorreko bizitza haien esku geratu eta sostengatu zutelako –egunerokotasuna, ekonomia arloak...-. Gaur badakigu, gainera, lan desberdin asko egiten zituztela –garraioa, zamaketa, kaien mantenua...-.

3. Esplorazioen aroa eta espedizioen planteamendua

- Mundubiraren garaian hasi ziren bestearekiko harremanak, eta askotariko lurraldeak konektatzeko bideak.
- Elkarren aurkikuntzak norabide bikoitza izan zuen: elkar deskubritu zuten, zentzu askotan.
- Badakigu mundubira merkataritza espedizio bat izan zela, ez militarra: “business”-a zuen helburu.



Ezagutzari begirada berriak

Non jarri fokua? 7+2 puntu

4. Elkanoren izaera eta erabakiak hartzeko estiloa

- Elkanoren jaiotze-data zehaztu ahal izan da: oso gaztea zen mundubirara abiatu zenean!
- Mundubiran gertatutakoez ere zerbait gehiago dakigu: datuen arabera, Elkanok ez zen Orango sarraskian egon. Aldiz, Koroaren zerbitzura zenbait kanpainetan parte hartu omen zuen.
- Jakin da baita ere mundubiran Elkanok zenbait erabaki garrantzitsu hartu zituela –adibidez itsasaldiaren norabidea markatzea, erregearen erabakiaren kontra; eta bera agintean zen bitartean marinelekin hainbat erabaki kontsultatu zituela.

5. Kolektibotasunaren garrantzia

- Getarian dagoen plakan eman dira urratsak, kolektibotasun hori aitortzeko.
- Dakigunetik: Elkanoren eskifaian bazeuden indigenak, eta aitortza bat zor zaie. Azken datuen arabera, gainera, badirudi ez zitzaizela esklabu papera eman. Esploratzaile edo enbaxadore gisara etorri ote ziren?



Ezagutzari begirada berriak

Non jarri fokua? 7+2 puntu

6. Iraganaren gaurkotasuna

- Gogoratzea, hausnartzea da.
- Egungo munduaren oinarri asko mundubiraren aroan daude: gastronomia, kapitalismoaren hastapena, erlijioen pisua, itsasoarekiko pertzepzioa...
- Ildo horretan, eragindako sufrimenduak ere aitortu behar dira, “klitxeetan” erori gabe –“gizon txuria/indigenak”, “gizati basatia/gizati zibilizatua”...-.

7. Egitaldi mundiala

- Mundubira egitaldi mundiala izan zen: Euskal Herri osoa, mundu osoarekin.
- “Bostekoa munduari” leloak adierazten du irekitasun hori.
- Gaur badakigu euskarak ere mundubira osatu zuela.

8. Nolakoa zen Getaria garai hartan?

- Txikia, eta ondoko herriein harremandua –Zarautz-.
- Zikina: orduan iritsiko zen lehen iturria kalera –ordura arte dena zihoan kalera: kiratsa-.
- Itsastarra eta euskalduna.


9. Lehorreratzea herri-ondare zibila izan da oraindaino.



d.

Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?


Etorkizuneko ikuspegia
eta proposamenak



Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

Indarguneak mantenduz eta birpentsatu beharreko ataletan fokua jarrita, ekitaldia gaurko garaietara eguneratzeko ikuspegia irudikatu da.

Epe luzerako norantza marraztuta, moldaketak gradualki eta modu zainduan egiteren garrantzia azpimarratu da; Lehorreratzeak herria batzeko erakutsi duen gaitasuna manten dezan.



kontakizuna

antzezpena

**partehartzea eta
parekidetasuna**

**ezagutzaren
pedagogia eta
sozializazioa**

logistika

Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

Kontakizuna

Ezagutzari begirada berriak jarrita, kontakizunak moldaketak eskatzen ditu, datu batzuk zehaztu edo ñabartu, elementu berriak sartu eta beste batzuk indartzeko.

Zenbait mezu indartu egin nahi dira:

- Elkano nolakoa zen (dakiguna): euskalduna, itsas-merkataria, itsas-nabigazioan ezagutza zuena, egiteko era jakin batzuk zituen...
- Getariako herriaren presentzia eta izaera, garai hartan.
- Merkataritza-helburua izan zuen espedizioa izan zela: espezie eta diru-iturrien bila irten ziren.
- Bidaiari ekiterako, eta bidaian bertan, eskifaiak jakintza eta ezagutza asko zuela –orientazioa eta abar-, eta horri esker lortu zutela lortutakoa.
- Espedizioan Elkanok kapitaitza hartu zuenean talde-lana zaindu zela, eta marinelen artean harreman demokratiko edo horizontalak eman zirela.
- Elkanok egindakoagatik jaso zuela errekonozimentua: armarria; eta Getariako herriak aitortzen diola mundubiraren lorpena espedizioari.
- Mundubirak ekarri zuena: balentria, aniztasuna, mundu koloretsu baten aurkikuntza, elkar-ezagutza zabala, kultura desberdinen lotura...
- Mundubira gauzatu zuen espedizioak mundu anitza aurkitu zuela; eta gaur ere mundu anitzean bizi garela.

Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

Kontakizuna

Kontakizunari dagozkion moldaketek tokia eman nahi diete ezagutzarekiko begirada berriei.

Duela 100 urteko getariarrek bezala, herrian adostuz zer eta nola kontatu munduari.

Eduki edo mezu berriei tokia eman nahi zaie Lehorreratzean.

- Munduari bira eman ostean ontzian 18 marinelez gain 3 indigena ere etorri zirela; eta Cabo Verden 12+1 geratu zirela.
- Mundubirak, argieztan gain, itzalak ere izan zituela: sufrimentua, gatazkak, eraginak... maila eta dimentsio desberdinetan: eskifaian, zain geratu zen herrian, topatutako beste herrialdeetan, espedizioan zehar...

Azkenik, gertaera batzuen kontakizuna murriztu edo zuzenean kentzea proposatu da, gaurko garaira egokituz.

- Elcano erregearengana doan pasartearen kentzea proposatzen da, Elkanok jaso zuen aitortzaren aipamena beste modu batera islatuz.
- Elkanok jaso dezala armatarria elizan.

Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

Antzezpena

Moldaketa errazak helburu.

Antzezpenean planteatutako aldaketek samurrak izan behar dute, 4 urtean behin errepikatuz egonkortzeko modukoak.

Narratiba egokitu horiek antzezpenera eramanda, eszenografia landu eta zehaztu beharreko gaia da.

Zenbait aukera landu eta jaso dira, ekitaldiaren lehenengo zatian:

- Itsasontziak portura iristen direneko unea orohar bere horretan mantendu nahi da—ontziak, soinua...-, tripulatzaileen moldaketa barneratuz -18+3 marinel izatea-.
- Tripulazioaren ezagutza adierazteko balio dezake itsasontzia porturatzen denean marinelek, kateak ekarri ordez, bestelako elementu batzuk erakusteak —itsas-mapak edo antzerakoak-.
- Merkataritza-helburua espezie eta antzeko elementuekin irudika daiteke.
- Garai hartako Getaria eta getariarrak nolakoak ziren, bizimodua, Elkanoren familia, emakumeen rola gizarte hartan... portua zein kaleak “jantzi” daitezke eta horren irudi izan.
- Elizako pasartea gaur egun bezala irudikatzen da, Elkanok Getariara iristerakoan bisitatzeko egin zuen promesa gogora ekarriz.
- Elkanok garaiko erregearen aldetik jaso omen zuen armarrria beste modu batean irudikatzea proposatzen da, elizako pasartean barneratuz.

Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

Antzezpena

Moldaketa errazak helburu.

Antzezpenean planteatutako aldaketek samurrak izan behar dute, 4 urtean behin errepikatuz egonkortzeko modukoak.

Narratiba egokitu horiek antzezpenera eramanda, eszenografia landu eta zehaztu beharreko gaia da.

Ekitaldiaren bigarren zatian:

- Aniztasuna eta mundubirak kontinente berriekiko suposatu zuen ezagutza eta harremana: gaur egungo karrozen atalaren ordeztu, egoki ikusi da kontinenteen aniztasuna islatuko duten delegazioen ideia esploratzea.
- Ideia horrek Lehorreratzean aktiboki parte hartzeko aukera berriak zabal ditzake, ekitaldiari irekitasun handiagoa emanez.
- Gaur egun karrozen atalean 55 bat lagunek parte hartzen dutela kontuan izanda, delegazioen ideian beste hainbeste gutxienez lortu beharko genituzke.
- Hartzen duen itxuraren arabera, beharrezkoa izan liteke jantziak berrikustea, eta estilo “naturalago” bat ematea.

Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

Partehartzea eta parekidetasuna

Parte hartzeko aukerak zabaldu, herri-kohesioa zainduz.

Lehorreratzearen izaera parte hartzailea indartu nahi da, parekidetasuna erdian jarritz.

Partehartzea eta parekidetasuna:

Lehorreratzea antzezlan bat izanik, “figura” edo “pertsonai” bakoitzak bete beharreko **irizpide batzuk** definitzea proposatzen da. Pertsonaiaren arabera, irizpide horiek zorrotzagoak edo arinagoak izango dira. Adibidez: marinel papera egingo duenak argala izan beharko du (goserik eta oso ahul iritsi zirela badakigulako); Elkanoren papera beteko duenak halako baldintzak bete...

Irizpide horiek betez gero, eta karakterizazioa baliatuta, edozein getariarrek izango luke zozketaz parte hartzeko aukera –herrian bizi direnak, gizon zein emakume- .

Aukeratua suertatzen denari, 2 ediziotan parte hartzeko konpromisoa eskatzea planteatzen da (zenbait paperek prestaketa minimo bat eskatzen dutelako).

Modu honetan, Lehorreratzean parte hartzeko aukerak zabaldu egin nahi zaizkie getariarrei; antolaketa eta logistikaz gain, nahi dutenek bestelako paper bat ere hartzeko aukera izan dezaten.

Agintarien komitiba:

Ahal den neurrian herritarrei protagonismo handiagoa emateari garrantzia eman zaio.

Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

Partehartzea eta parekidetasuna

Parte hartzeko aukerak zabaltu, herri-kohesioa zainduz.

Lehorreratzearen izaera parte hartzailea indartu nahi da, parekidetasuna erdian jarritz.

Tripulatzailleen aldaketa:

Azken Lehorreratzean bertan behera geratu zein oinordekotza, itsasontzian doazen tripulatzailleen kasuan. Ordutik, tripulatzaille papera bete izan dutenek utzitakoan, partaide berriak zozketaz aukeratuak dira. Oraindik, ordea, zenbait mariñelek ez diote paper horri uko egin.

Epe luzerako norantza markatuta, 2022ko ekitaldiari begira pixkanaka irizpide berriekin funtzionatzen hastea proposatu da, orain arte eginkizun hori bete dutenei merezi duten aitortza eginez.

Paper horretarako definitutako irizpideak betetzen ez dituztenek naturalki eman beharko liekete lekukoa partaide berriei. Pixkanakako trantsizio horrek lagunduko du ekitaldiz ekitaldi partaideen artean transmisioa bermatzen.

Horretarako lanketa zuzen bat egingo da oraindik ere tripulatzaille direnekin, haien ekarpena eskertuz eta aitortuz urrats berrian elkarrekin eman nahian.

Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

Ezagutzaren pedagogia eta sozializazioa

Ahozko zein idatzizko transmisioa funsezkoa da, Getariako eta Euskal Herriko memoria kolektiboa sortzeko.

Ezagutzaren pedagogia eta sozializazioak lagun dezake horretan.

Ezagutzaren pedagogia eta sozializazioa:

Lehorreratze ekitaldiak badu Elkanori eta mundubirari buruzko ezagutzaren pedagogia eta hedapena errazteko gaitasuna.

Besteko euskarri batzuk balia daitezke kontakizuna Lehorreratzearen aurretik, bertan eta ondoren ere lantzeko, eta ezagutza horren transmisioa hobetzeko.

Adibidez: eskuorri edo antzekoak, ekitaldian bertan banatzeko edo aurrez ikastetxeetan lantzeko, megafonia bidez egiten den narrazioa...

Norantz eboluzionatu behar du Lehorreratzeak?

Logistika

Mimoz egindako antolaketa Lehorreratzean baloratutako ezaugarrietako bat da.

Xehetasunak zaintzeari arreta jarri nahi zaio aurrerantzean ere.

Logistika arloko gai puntualak:

Estetika: jantziak. Kontakizunaren moldaketen arabera, egokitzapen bat eska dezakete.

Pantallak: jar litezke toki gehiagotan, ikusleek errazago jarrai dezaten ekitaldia bere osotasunean?

Hizkuntzak: hizkuntza desberdinei ematen zaien trataera zaindua mantendu nahi da, eta ahal bada hobetu.



5 Hurrengo urratsak

Hurrengo urratsak

Herri elkarrizketak eman ditu bere fruituak: parte hartu duten getariarrek, orain arte ekitaldia mantendu eta zaindu dutenen lana aitortuz, marraztu dute etorkizuneko norantza.

2022ko
Lehorreratzean ikusi
behar da zerbait.
Herriari eta munduari
mezu bat adierazteko
dugun aukera ezin
dugu galtzen utzi.

2022. urtean

Herri-elkarrizketa prozesuaren ondoreneko lehen urratsa prozesuan landutakoa hartu, eta 2022ko Lehorreratzean zer eta nola txertatu daitekeen zehaztea izango da.

Lanketa hori Getariako Udalak gidatuko du, talde eragiletik ateratako herritar-taldetxo baten laguntzarekin.

Lantalde anitz horrek hartuko du talde eragilearen lekukoa; eta talde zabalagoaren babesarekin, ikuspegi operatibo batetik etorkizuneko Lehorreratzearen norantza 2022. urteko edizioan zer-nola lurreratu daitekeen definitu, eta horretarako behar diren erabakiak eta urratsak ematen ahaleginduko da.

Herri-elkarrizketaren ibilbidean behin eta berriz errepikatu denez, moldaketek gradualak izan behar dute; ondo landuak, Lehorreratzearen izaera zainduz denboran egonkortu daitezen.

Era berean, ausardia puntu bat ere eskatu da, Lehorreratzearen bitartez Getariak bere mezu propioa helaraz dezan mundura.

2022an osatuko da,
beraz, herri-
elkarrizketa prozesua.

Horren aurretik ibilbidea posible egin dutenei eskerrak ematea eta egindakoaren berri getariarrei jakin araztea dagokigu.



6 Eranskinak

Akta grafikoa



Talde eragilea

2021.10.07

Akta grafikoa

Talde eragilea

Lehorreratzea

ZERTARAKO?

JARRAITU BEHAR DU BIZIRIK

• HITO HISTORIKOA (1) gogoratze eta erabakia

• HERRIKO PERTSONA: ELKANO

• ZER GIVEN gogoratzea/Euskal Herriko nabigatzaileak

• MUNDU BIRA* /era komertziala (HERRI KOMERTZIALA) aitortza bide berriak

• ITSASOA: ezagutza Getarian [HERRI TXIKIA]

• NABIGATZEKO modu BAT: erabakia NOLA HERRI ZIREN

• Beste "pero" batzuk badaude. Bidaia eragileak [mentalitatea] bidaia berriak. Bat Arabiarren ziren

• MAGALLANES VS ELKANO (mu.) erabakia

ZER KONTATU?

nahi dugu

geure errotatza

KOMPLEXITASUNA OREKA

aboz etorri zergu

ezagutza behar dugu

jakintza [fundazionala]

aboz izan da trasmisioa

- lehorreratze bera: "ailegatu ziren" $18+3=21$ (4 euskaldun)
- mundu bira eman zuten (15) → KOSTATA!
- penuriak paza zituzten: sufimendua
- amaren garrantzia
- mundu amita zela (Topatu zuten: Europa, Indigenak, puzto asko)
- itsas-merkataritza izan zen (bide bat ireki nahi zuten / ABERASTASUNA)
- teknologia batzuk erabili zituzten: ARABARRAK
- Zeintzuk izan ziren "itzalak"? (mundu birarenak)

*antzeziana MUGATUA da

⇒ zeini? geure buruari eta [munduari]

[Beste batzuk datu zuten historioa]

datu historikoak

dibulgatu nahi ditugu

antzezlanen

lehenak izan ziren



Trasmisioa geure kontaketa

antzezlanen


lehenak izan ziren

Trasmisioa geure kontaketa

Talde eragilea

2021.11.18

Akta grafikoa



Talde eragilea

2021.12.2

Akta grafikoa



2021.10.5


Akta grafikoa



Emakumeekin lan-saioa

2021.10.20

Akta grafikoa



Nerabeekin lan-saioa

2021.10.22

Akta grafikoa



Mintzodromoa

2021.11.04

Akta grafikoa

100 urte EZAGUTZA

2021.11.04


ikerketa eta begirada
berria?

KONTAKIZUNA

TITULARRAK

- Familien presentzia eta AMQrena (catalina) • emakumeen presentzia (ofizialak) Paper aktiboan
- Herrien presentzia: Egetaria
- Merkataritza helburu bezala espedizioan: espeziak eta ezakoen DIRU ETURRIA
- Indigenak etorri ziren: 18+3 ... eta 12+1 Cabo Verde (elkanoren hitzetan: Magallana)
- Jakintza bidaia: orientazioa ... jakintza eskar izateko era
- Eskola zibila MANTENTZA eta BAIKOTZ JAIRI
- mundubira: balentria, oniztasuna, mundu kolorekoa, elkar ezagutza, zabalak kultura desberdinak
- mundua BORDBILDU demagatu zuen

arilo pedagogikoa • karratzen gelaerak



- elkanoren "ezaugarriak" gaztea biografia
PRIMUM
AUKERATUTIA/HORAKETA
ERREGAUREN ESANBAMUAREN KONTRAN
mundubira DENIN ORTEAN ERABAKITA
- indigeneen presentzia NAO VICTORIAN
"onbaxadore gisa" 18+3 Kide (12+1)
desentzatu
- bidaiaren eragina
BERDURA PLAZA
- bostekoa munduari
euskarak ere bidaiatu zuen
- 7 kontinente
- Lehorreratzea: herri-ondarea zibila
- Egetaria: zikina elkan URRIK EZ itxarazteko
askaldun herri-takia blogean zulaika

Jatorri anitzetako getariarrekin lan-saioa

2021.11.18

Akta grafikoa

¿cómo lo vivimos?

- **Intenso**, emocionante, impresionante, **es un PLUS/PRESTIGIO**
- Lo tomo como un teatro: ¿por qué a Elcano?
- Hay que hablar más **¿y el médico?** ¿qué pasó en CABO VERDE?
- **Elcano vs Magallanes** / importancia de la historia **¿y los chinos?**
- Bonito, intenso... primera vez. (emociona la música)
- Presencia personas otros países en el teatro (que ya están aquí)
- ¿cómo se cuenta la historia? ¿quién?
- ¿qué significa para la gente de Getaria? **INTERESES POLÍTICOS**
- ¿qué pasar con los/as esclavos/as? 18+3 indígenas **Presencia** [12+1] **¿dónde están?** ¿quiso volver a sus tierras?
- Hace 100 años: **CREATIVIDAD** • diversión
- HOY, sentido más crítico **Tragedia**, qué hicieron realmente, otra lectura

Cambios en 2022

- **Teatro**: que sea mejor caracterizado participación **ABIERTA**
- ¿carrozay = conquistas? ¿y las mujeres?
- ¿dónde nació Elcano? **AVENTURERO**
- gracias a las mujeres
- Representar oficios y arte naval
- Valor de las especies
- comitiva exótica
- **Banderas** de todos los países por los que pasó
- personas de cada continente **integrar COLOR incluso culturas**

2021.11.18 plaza v. kalijira (se corrige la historia)

INTERPRETACIÓN: TEATRO - ESCENARIOS

Sylvie • Irina • Mbaye • Seni • Manuel • Esther • Barbara •

“

Gure elkarrizketatik aterako da gure etorkizuna.

Europako Bauhaus Berria

**Eskerrik asko guztioi
elkarrizketa honetan
parte izateagatik!**